

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

3657

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 30ekoa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2025. urterako «Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) honako hauek sustatzera bideratutako jarduketaz arduratzen da: industria- eta enpresa-jarduera, inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta industria-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapena, eta enpresa arloko ekintzailatza-jarduera.

Hori horrela, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia Industria Adimendunerako Estrategia sustatzera zuzendutako askotariko ekintzak garatzen ari da, enpresen artean digitalizaziorako eta jasangarritasunerako teknologia aurreratuen erabilera sustatzeko. Enpresak teknologia horiek erabiltzen hasi berriak dira, eta bide hori sustatzeko eta ildo horretan sentsibilizatzeko ekintzen beharra dago.

Horren ondorioz, Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio programa diseinatzean, lehenetsuneko helburu gisa ezarri da industria-enpresen artean digitalizazioari eta jasangarritasunari lotutako teknologien erabilera sustatzea.

Bestalde, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DAEL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du Lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena hainbat printzipioren arabera egiteko, besteak beste publikotasun-printzipioaren arabera. Era berean, DAELen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritzaren ebazpen bidez baimendu da programari dagokion gastua.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2025. urterako «Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio» Laguntza Programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horren edukia Eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

Bigarrena.– 2025. urterako «Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio» programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2025eko uztailaren 30a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
JON ANSOLEAGA UGARTE.

ERANSKINA

2025. URTERAKO «BASQUE DIGITAL INNOVATION HUB (BDIH) - KONEXIO»
LAGUNTZA PROGRAMA ARAUTZEKO OINARRIAK

Eusko Jaurlaritzak Fabrikazio aurreratuaren estrategia (Basque Industry 4.0) berrikusi zuen 2020an, eta hortik etorri zen Industria Adimendunaren 2021-2025 aldirako estrategia berria. Industria Adimenduna kontzeptua berrikuntza eta fabrikazio jasangarriko teknologiak eta abangoardiako teknologia digitalak sortzean eta aplikatzean datza; berrikuntza eta teknologia horiek balio erantsi handiko produktu eta zerbitzuak sortzeko eta aberastasunari, enpleguari eta ingurumen-inpaktua minimizatzeari dagokionez potentzial handia duten negozio-eredu berriak garatzeko sortzean eta aplikatzean, hain zuzen. Hor sartzen da produktuak eta prozesuak bizi-zikloaren ikuspegitik diseinatzea, material eta prozesu jasangarriak erabiltzea eta funtzionalitatea, eraginkortasuna eta/edo erabilera-esperientzia hobetzen duten eta/edo datua ustiatzearen bidez balioa ematen duten irtenbide digitalak aplikatzea.

Industria Adimendunaren estrategiaren xedea berrikuntza, garapen teknologikoa, jasangarritasuna eta talentua sustatzea da, euskal industriaren lehiakortasuna lortzeko eta gero eta globalagoa den ekonomian negozio-nitxo batzuetan lider-posizioa hartzeko palanka gisa.

Basque Digital Innovation Hub-a (BDIH) irabazi-asmorik gabeko ekimen bat da, eta RIS3 Euskadi Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategiarekin loturik dago (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana 2030-RIS3 Euskadi eta Industrializazio Planean definitua eta ezarria), enpresa-ehunari teknologia digital eta jasangarriak esperimentatzen laguntzeko.

BDIHren helburua Europako industria-ehunari eta, bereziki, euskal ETEei industria adimenduaren, energiaren eta osasunaren ingurunean industria digitalaren eta jasangarriaren erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasun zientifiko eta teknologiko berritzaile eta bikainak eskuratzeko bide erraz eta errentagarri bat eskaintzea da, hala, ETEei eboluzionatzen eta lehiakorrago izaten laguntzeko.

Sare bat da, eta hor daude sartuta digitalki konektatutako I+G azpiegiturak, planta pilotuak eta RIS3 estrategietako (industria adimenduna, energia eta osasuna) askotariko alderdietan espezializatutako know-how delakoa, 8 nodotan antolatuta: Robotika malgua eta kolaboratiboa, Fabrikazio aditiboa, Material aurreratuak, Zibersegurtasuna, Adimen Artifiziala, Makina adimendunak eta konektatuak, Gailu Medikoak eta Osasun Digitala eta Sare Elektriko Digitalak.

BDIHren jabetza partekatzen dute I+G zentroek, lanbide heziketako zentroek, unibertsitateek eta enpresa arloko I+G unitateek, eta horiek guztiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kideak dira eta eskualdeko erakunde publikoen babesa dute. Zerbitzuak eskaintzen ditu I+G arloko proiektuak garatzeko, industria-proiektuak eskalatzeko, abangoardiako teknologiak erakusteko, baliozkotzeko eta azaltzeko, eta prestakuntzarako eta oinarri teknologikoko enpresa berriak azeleratzeko baliabide gisa, leihatila bakarraren ikuspegiarekin.

Era berean, Europako Batzordeak, Komunikazio Sareen, Edukien eta Teknologiaren Zuzendaritza Nagusiaren (DG Connect) bidez, eta «Digital Single Market» Estrategiaren esparruan, hainbat ekimen sustatu ditu azken urteotan; besteak beste, Digital Innovation Hubs izenekoa; horren helburua da Europaren lehiakortasuna hobetzea teknologia digitaletan, baita ETE guztiek, tamaina, herrialdea eta sektorea edozein dutelarik ere, berrikuntza digitalen onurak eskuratu ditzaketela bermatzea ere. Digital Innovation Hubs horiek leihatila bakar gisa funtzionatzen dute; horietan, enpresek eta, bereziki, ETEek, startupek eta enpresa ertainek negozioak, ekoizpen-prozesuak, produktuak eta zerbitzuak hobetzeko laguntza jaso dezakete teknologia digitala txertatzearen bidez.

BDIHk Digital Europe programaren Europako deialdian «Bikaintasun Zigilua» lortu du. Horri esker, EDIH (European Digital Innovation Hub) gisa har daiteke. EDIHen Europako sareko kide izateak ahalbidetuko digu gure BDIHren gaitasun osoa garatzea, Euskadiko nahiz Europako ETEetara bikaintasuna eta espezializazioa esportatzea edo inportatzea eta ekosistema batzuk eta besteak konektatzeko aukera, eskualde ugaritako hornitzaile eta erabiltzaileentzako berrikuntza-aukerak identifikatuta. Horrek euskal ETEei lagunduko die hedatzen eta beste merkatu batzuk aprobetxatzen, EBko balio-kateak garatu, merkataritza-aukera berriak sortu edo aurreko berrikuntza arloko pilotuak edo esperimentuak merkaturatzen lagunduko die.

Europa Digitala (DIGITAL) programaren helburua susperraldi ekonomikoa bizkortzea da, eta Europako gizartearen nahiz ekonomiaren eraldaketa digitalari forma ematea, denen onerako, baina bereziki enpresa ertain eta txikien onerako.

Aurreko hori kontuan hartuta, BDIHra eta Europako zenbait DIHtara atxikitako aktiboen erabilera sustatzeko beharra ikusi da, 2025. urterako «Basque Digital Innovation HUB (BDIH) – KONEXIO» programa (hemendik aurrera, «Programa») honen bitartez industriaren arloko euskal enpresek dituzten beharrezanean erantzuteko duten gaitasuna dela-eta.

Era berean, aipatu beharrekoa da Programa hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren urtarilaren 24ko Aginduaren bidez onetsitako eta erakundearen gardentasun-atarian argitaratutako SPRIren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dagoela, 2025-2028 aldirako, eta Planaren helburu hau lortzen laguntzen du: Manufaktura-enpresen ondasunak eta zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko teknologia digitalak eta jasangarriak txertatzen laguntzea, Basque Digital Innovation Hub (BDIH) osatzen duten baliabideei buruzko laguntza teknikoaren, orientazioaren eta bideragarritasun-azterketarako proiektuen bitartez. Arlo hauetara bideratuta dago; robotika malgu eta kolaboratiboa, fabrikazio aditiboa, zibersegurtasuna, makina adimendunak eta konektatuak, material aurreratuak, gailu medikoak, osasuna eta elektrizitate digitalak.

1. artikulua.– Xedea.

Programaren helburua da Euskadiko industria-enpresei eta industriari lotutako zerbitzuak eskaintzen dituztenei Basque Digital Innovation Hub-ek (BDIH) eta Europako zenbait Digital Innovation Hubek (EDIH) eskaintzen dituzten esperimentazio- eta testatze-azpiegituren erabilerrako sarbidea, konexioa eta laguntza teknikoa emango dieten zubi-plana aurrera eramatea.

Helburu hau BDIHko edo aukeratutako nazioarteko DIHko eragileek eskainitako laguntza tekniko baten bidez gauzatuko da, zenbait nodok eskaintzen dituzten teknologia digitalak eta jasangarriak xurgatzeko gaitasuna areagotzeko aukera emango duen ekintza-plan bat edo kontzeptu proba bat egiteko. Hauek dira aipatutako nodo horiek: Robotika malgua eta kolaboratiboa, Fabrikazio aditiboa, Material aurreratuak, Zibersegurtasuna, Adimen Artifiziala, Makina adimendunak eta konektatuak, Gailu Medikoak eta Osasun Digitala eta Sare Elektriko Digitalak, lehen aipatu ditugun azpiegiturretan gauzatzekoak.

Ekintza horiek emaitzara irekitako metodologia bati jarraituz gauzatuko dira, enpresek aukera izan dezaten zentroek zer-nolako laguntza ematen dieten erabakitzeko; era horretan, eskaintzen diren aktibo eta zerbitzuen nahiz enpresen eta haien beharrezanaren arteko egokitzapena hobe izango da.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Laguntza horiek behar bezala jasotako eskaeren ondoz ondoko esleipenaren arabera emango dira. Ondorioz, banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

2.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute. Ondorioz, 2023ko abenduaren 13an Europako Batzordeak onartutako (EB) 2831/2023 Erregelamenduak xedatutakoaren mende egongo dira («2831/2023 Erregelamendua»).

3.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.– Programa honen barruan emandako dirulaguntzek ez dute lotura zuzenik esportatutako kopuruekin, banaketa sare bat sortu eta ustiatzearekin, edo esportazio jarduerarekin lotutako beste gastu arrunt batzuekin.

3. artikulua.– Baldintzak eta definizioak.

Programa honen helburuetarako, definizio hauek ezarri dira:

1.– Laguntzaren intentsitatea. Laguntzaren zenbatekoa, aukera daitezkeen gastuen eta/edo inbertsioen onartutako gehieneko aurrekontuen ehuneko gisa adierazita.

2.– BDIH – Basque Digital Innovation Hub. Enpresei eskuragarri jarritako teknologiei lotuta prestakuntzarako, ikerketarako, testatze eta balioztatzetarako aktibo eta zerbitzuen sare konektatua. II. eranskinean daude jasota.

3.– BDIHko eragilea. Basque Digital Innovation Hub osatzen duten eragile zientifiko-teknologikoen multzoa. II. eranskinean daude jasota.

4.– DIH – Digital Innovation Hub. «Berrikuntza digitaleko zentroak» dira eta ez dute irabazi-asmorik. Enpresei, bereziki ETEei, eta sektore publikoari laguntzen diete eraldaketa digitala gauzatzen. DIHren nukleoan ikerketaren eta teknologiaren arloko erakunde bat (RTO) edo unibertsitate-laborategi bat egon ohi da; horrek, zenbait bazkiderekin batera, honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu, besteak beste: teknologia digital, software eta hardware berriekin esperimentazioa, berrikuntza digitalei etekinik handiena ateratzeko gaitasunak eta entrenamenduak. Hautatutako DIHren zerrenda III. eranskinean ageri da.

5.– Europako DIHetako gastuak. Aurkeztutako proiektuaren alorrean adituak diren eta proiektu horren exekuzioan parte hartu duten DIHak azpikontratatzeko gastuak.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Dirulaguntza-programa honen helburura bideratutako 2025eko baliabide ekonomikoak 950.000 eurokoak dira, eta SPRI – Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. SPRIren aurrekontuak 2025erako EAEko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

2.– Funtsak mugatuak direnez, programa honen bitartez lortu nahi da ahalik eta denbora tarte txikiena igarotzea laguntza eskatzen denetik ematen den arte, eta horrenbestez, espedienteak osatua dagoenean, era ordenatuan egingo da esleipena. Programaren gehieneko zuzkidura gainditzen duten laguntzei ezezkoa emango zaie, ebazpen baten bidez.

3.– Programarako funtsak agortzen badira, gelditu egingo da laguntzak emateko prozesua, eta horren berri emango du SPRI- Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak sozietatearen web orrian (web www.spri.eus) eta EHAAn argitaratuko den ebazpen baten bidez.

4.– Behin aurrekontu-kreditua bukatuta, ezingo da beste dirulaguntzarik eman eta, hori dela eta, aurkeztu diren baina ebazteke dauden eskaerak ezetsi egingo dira.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko betekizunak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte industria arloko enpresek eta produktu-prozesu industrialekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek, eskaera eginda, 6. artikuluan deskribatutako diruz lagun daitezkeen jarduerak egiteko proiektuak aurkezten badituzte. Hori guztia, baldin eta:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat badute. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izan beharko du inpaktua eta bertan egin beharko da diruz laguntzekoa den jarduera.

b) Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta emanda badaude. Epigrafe hori kontuan hartuko da enpresaren jarduera artikuluko 1. atalean adierazitako programaren xede-jardueraren batekin bat datorren zehazteko.

c) BDIHko eragile baten edo gehiagoren edo DIHko eragile baten laguntza badute proiektua gauzatzeko.

2.– Ezingo dituzte deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak jaso:

a) Sektore publikoren batekoak edo sektore publikoaren parte direnek, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalerako arauen arabera.

b) DAELen 13. artikuluan aurreikusten den egoeraren batean daudenek.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela aintzat hartuko da Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an emandako aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren aurkaratzea bertan behera uztea adostu bada.

c) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten menpe daudenek.

d) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) Aurreko hiru urteetan minimis laguntza gisa 300.000 euro baino gehiago jaso dutenek.

3.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta emandako dirulaguntzaren azken ordainketa egin arte bete beharko dira aurreko ataletan laguntzen onuradun izateko aipatutako betekizunak.

4.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako alderdiak modu honetan egiaztatuko dira:

a) SPRIk ofizioz egiaztatuko du honako betekizunak betetzen direla:

– Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat dutela, zeinetan proiektuak eragina izango duen.

– Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta emanda daudela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Dena den, eskatzaileak uko egin diezaioke ofizioz egiaztatzeari. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

b) Gainerako betekizunak 10. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztuz edo oinarri hauen eranskinean jasota dagoen normalizatutako ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatutako dira. Bigarren kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpen horretan adierazitako dokumentazioa egiaztatzeko betebeharrak izango du eskatzaileak, SPRIk hala eskatzen dionean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan eta DAELen 13.9 artikuluan aurreikusitako eskakizunak betetz. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatutako baldintzen egiazkotasuna ikuskapen bidez edo dokumentazioa eskatuz egiaztatu ahal izango da hala badagokio.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gauzatzeko epea.

Diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko dira industria arloko enpresek eta produktu-prozesu industrialekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek gidatutako laguntza teknikoak emateko proiektuak, honako hauetarako aukera ematen badute:

- teknologia digitalak eta jasangarriak xurgatzeko gaitasuna areagotzen duen ekintza-plan bat egitea, eta/edo

- horien kontzeptu-proba bat egitea.

Proiektu horien gauzatzea 2025eko abenduaren 19a baino lehen amaitu behar da. Proiektuak, halaber, honako teknologia hauek txertatzeko kontzeptu-proba bat diseinatzera bideratuta egongo dira:

- Robotika malguak eta kolaboratiboak.
- Fabrikazio gehigarria.
- Material aurreratuak.
- Zibersegurtasuna.
- Adimen artifiziala.
- Makina adimendunak eta konektatuak.
- Gailu medikoak eta osasun digitala.
- Sare elektriko digitalak.

Ez dira diruz lagunduko artikuluko honetan deskribatzen diren eta erakunde onuradunaren beraren katalogoaren barruan dauden produktuak/zerbitzuak.

Inola ere ez da diruz lagunduko Europar Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetara edo hirugarren herrialdeetara esportatzea; eta, ondorioz, Programa honen testuinguruan diruz lagundutako dirulaguntzek ezingo dute zuzenean lotuta egon esportatutako kantitateekin, banaketa-sare bat martxan jarri eta ustiatzearekin, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste ohiko gastu batzuekin.

7. artikulua.– Gastu hautagarriak eta gastu hautagarriei aplikatzeko baldintzak.

1.– Gastu hautagarritzat hartuko dira ondorengo kontzeptu hauek, aurreko puntu batean deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jarduerekin lotuak:

- Aurkeztutako proiektuaren alorrean aditua den eta proiektu horren exekuzioan parte hartu duen BDIHaren kontratazio-gastuak (erakunde onuradunak hautatuko du).

- Aurkeztutako proiektuaren alorrean aditua den eta proiektu horren exekuzioan parte hartu duen Europako DIHaren kontratazio-gastuak (erakunde onuradunak hautatuko du).

– Erakunde eskatzaileko langileen bidaia-gastuak (Europako DHI baten aktiboak erabiltzen direnean soilik).

2.– Gastu hautagarriek ez dituzte gaindituko 8. artikuluan adierazitako gehieneko ehuneko eta zenbatekoak.

3.– Gastu hautagarriek Laguntza Eskatera SPRIn aurkezten denetik aurrera eta proiektua gauzatzeko epean sortuak edo fakturatuak izan behar dute. Halaber, laguntza-eskaera aurkeztu aurretik sortu edo fakturatutako gastuak ere onartuko dira, proiektua 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada.

4.– Ez dira gastu hautagarritzat joko, inola ere, laguntzaren eskatzaileak berak edo eskatzailearen taldeko enpresek egindako lanak, material didaktikoak prestatzea, aretoen alokairua, dietak eta antzeko gastuak. Gastu horiek fakturen kontzeptutik bereizita aurkeztu beharko dira.

5.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Lotura zuzena izango dute programa honen helburu den jarduerarekin.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarriaren balioespena kutxako irizpidearen arabera izango da.

d) Antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia dela irizten bada, gastu hautagarrien oinarria murriztuko da, gastu egokitzat eta proportzionatutzat jotzen den zenbatekoaren arabera.

6.– Fakturan aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da gastu hautagarria izango.

7.– Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatzeari:

DAELen 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu edo kontratatu egiten du, baldin eta hirugarren batzuekin diruz lagundu nahi den jarduera osorik edo partzialki egitea hitzartzen badu. Kontzeptu horretatik kanpo da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueren azpikontrataziorako edo hirugarrenen kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

DAELen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrenen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste erakunde, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada.

Dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

Hirugarrenekin hitzartutako jarduera diruz lagundutako zenbatekoa baino % 20 handiagoa bada, eta zenbateko hori 60.000 euro baino altuagoa bada, kontratazioak DAELen 31.3 artikuluko baldintzak bete beharko ditu.

8.– Nolanahi ere, oinarri hauen testuinguruan diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira DAELen 30. artikuluekin bat datozenak.

9.– Aplikatzekoa den kasuetan, diruz lagundu daitezkeen gastuak DLOren 31.2 artikuluan adierazitako epeetan ordaindu beharko dira.

8. artikulua.– Laguntzen modalitatea eta zenbatekoa.

1.– Deialdi honen xede diren laguntzak dirulaguntza gisa emango dira, honako ehuneko hauetan, onartutako gastu hautagarriak aintzat hartuta:

- Gastu hautagarrien % 80 diruz laguntzea, gehieneko zenbateko hauekin:
- 12.000 euro proiektua BDIHko eragile batekin lankidetzan gauzatuz gero.
- 20.000 euro proiektua BDIHko eragile batekin baino gehiagorekin lankidetzan gauzatuz gero.
- 15.000 euro proiektua Europako DIH batekin eginez gero, proiektuko 12.000 euroko eta bidaietarako 3.000 euroko muga partzialekin.

2.– Gehienez ere bi eskabide onartuko dira erakunde bakoitzeko.

Erakunde batek bi laguntza-eskaera aurkezten baditu, proiektuak BDIHko aktibo desberdinekin egin beharko dira, baina BDIHko eta nodo bereko agente berak egin ahal izango ditu.

9. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak eskuratzen dituzten erakundeek beste laguntza bateragarri batzuk edo Europako Erkidegoko beste finantzabide batzuk eskura ditzakete, betiere gastu hautagarrietarako gehieneko laguntzaren intentsitatea errespetatzen badute.

2.– Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango erakunde onuradunak garatzeko asmoa duen jardueraren kostua baino handiagoa, soilik laguntza hori aintzat hartuta edo edozein administraziok edo horien sektore publikoek xede bererako emandako beste laguntza batzuk gehituta. Baldin eta beste laguntza publiko batzuk eta programa honen bidez emandakoa metaturik lortzen den zenbatekoak gainditu egiten badu kostu hori, murriztu egingo da programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko behar den neurrian.

3.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

4.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztien kopurua ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan azken hiru urteetan.

5.– De minimis laguntzak ez zaizkio metatuko Estatuko inongo dirulaguntzari, diruz lagundu daitezkeen gastu horiei dagokienez, ezta arriskuaren finantzaketa-neurri berdinentzako estatuko beste edozein dirulaguntzari ere, baldin eta metatze horrek gaindituko balu laguntzaren intentsitatea edo dagokion dirulaguntzaren kopururik altuena. Gehieneko kopuru hori kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera dago ezarrita, kategorien araberrako salbuespen-araudi baten edo Batzordeak harturiko erabaki baten bitartez.

6.– Aurrez aipatutako muga horiek edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programaren arabera emandako zenbatekotik.

7.– De minimis laguntzak emandakotzat joko dira enpresari aitortzen zaionean baduela legezko eskubidea laguntza jasotzeko.

10. artikulua.– Laguntza-eskaera.

1.– Eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauen ondoriozko gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira SPRIren webguneaz baliaturik.

2.– Aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek SPRIren webgunean gaituta dauden dirulaguntzaren eskaera-formularioak bete beharko dituzte. Ondoz ondoko pantailak ditu aplikazioak, eta eskatzaileek eskatuko zaien informazioa ikusi ahal izango dute horietan, oinarri hauen arabera.

3.– Eskaera hori sinadura elektronikoa aurreratuaren bidez (aitortutako ziurtagiri elektronikoa batekin) sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko nahikoa ahalorde duen pertsona batek.

4.– Erakunde onuradunaren eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira laguntza-eskaeran.

5.– SPRIk kontsultatu egingo du ea zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen diren, baita enpresa Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoen ere. Nolanahi ere, dirulaguntzaren eskaera egitean aukera dago eskatzaileak uko egiteko SPRIren kontsulta horri. Kasu horretan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

6.– Laguntza-eskaerarekin batera, agiri eta informazio hauek aurkeztu behar dira:

a) Oinarri arautzaile hauen I. eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

b) Alderdi hauei buruzko informazioa:

– Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzen zerrenda; bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

c) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea. Onuraduna langile autonomoa baldin bada, dagokion Udalaren edo Foru Aldundiaren Ogasun Sailaren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa egiaztatuko duena.

d) Erakunde onuradunaren IFZ.

e) Proiektuaren memoria, erakunde eskatzaileak aurkeztua. Bertan, honako hauei buruzko informazio xehatua agertu beharko da:

– Proiektuaren laburpena: egin beharreko proiektuaren deskribapena (laburpen gisa), helburua eta xede nagusien definizioa. Era berean, erakundearen estrategiak ere jaso beharko dira.

– Proiektua gauzatzen parte hartuko duen BDIHaren nodoaren (edo nodoen) identifikazioa (nodoko eragilea edo eragileak adierazi beharko da/dira).

– Proiektua gauzatzen parte hartuko duen BDIHren aktiboaren (edo aktiboen) identifikazioa.

– Proiektua hasteko motibazioa: proiektua garatzea eragin duen arazoaren edo beharraren deskribapen laburra, eta proiektuan proposatutako BDIHen teknologiak bereganatzeak ekarriko dituen abantaila eta prestazio berrien azalpena.

- Helburuen definizioa eta enpresaren estrategiarekiko eta BDIH Konexio programarekiko egokitasuna.
- Fase eta zereginen definizioa: plangintzaren deskribapena proiektuaren denboraren arabera, gauzatze-epeak banakatuta: iraupena, hasiera-data eta amaiera-data, eta proiektuan parte hartuko duen lantaldeak egin beharreko zereginen deskribapena.
- Emaizten eta esperotako inpaktuaren definizioa. Proiektuarekin lotutako aurreikuspenen ikuspegi laburra eskaini beharko da eta, jarraian, justifikazio teknikoan zehaztu.
- Erakunde onuradunaren eta kontratatutako erakundearen lantaldea identifikatzea (profila eta proiektuan izango duen rola): proiektuan parte hartuko duten pertsonen zerrenda, proiektuarekin lotutako esperientzia zehaztuta.
- Proiektuaren aurrekontua, barneko eta kanpoko dedikazioaren eta bidaia-gastuen banakapena barne, Europako DIHen kasuan dagokionean.
- Proiektuaren eskaintza tekniko eta ekonomikoa, parte hartuko duten BDIHko eragileek eta/edo hautatu den Europako DIHkoek aurkeztua. Bertan, honako hauei buruzko informazio xehatua agertu beharko da:
 - Proiektua kokatuta dagoen Europako EDIH, BDIHren nodoa (edo nodoak).
 - Proiektua BDIHren zein aktiborekin gauzatuko den.
 - Proiektu mota: diagnostikoa eta ekintza-plana, kontzeptu-proba.
 - Egingo diren jardueren, eta esperotako emaitzaren edo emaitzen azterketa zehatza.
 - Aurrekontuaren banakapena, langileen eta bidaien gastuak barne (DHlen kasuan, hala dagokionean).
 - BDIH/EDIHko taldea: osaera eta partaideen CVa.
 - Proiektua gauzatzeko egutegia, mugarriak eta entregagarriak jasota.

7.– Programako onuradun gisa azaltzen den enpresari dagokiona bakarrik onartuko da harremanetarako posta elektronikoko kontu moduan.

8.– Eskatzaileek bermatuta izango dute beren hizkuntza –euskara edo gaztelania– ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea, Programa honen ondorioz SPRIrekin izango dituzten harreman guztietan.

11. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

1.– Programa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2025eko urriaren 15ean bukatuko da. Eskatzaileentzako arreta egun horretako arratsaldeko 17:00etan (penintsulako ordua) amaituko da.

2.– Laguntza-eskaera ez badago guztiz beteta edo aurreko artikuluan adierazitako dokumentu guztiak aurkezten ez badira, enpresari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean falta den informazioa edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, eta horri dagokion ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat.

12. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Laguntza-eskabideak organo kudeatzaileak kudeatuko ditu. Eskabideen ebazpena espediente osatuta dagoen unearen arabera egingo da, eta aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.

2.– Prozedura ebaztea SPRIren Zuzendaritza Nagusiari dagokio, aurkeztutako hurrenkeraren arabera eta aurrekontu-kreditua dagoen bitartean. Haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan. Bestela, zuzenean, Bilboko administrazioarekiko auzietako epaitegien aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean.

3.– Ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da agiri guztiak aurkeztzen diren egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Onuradunari esleipenaren ebazpenaren berri ematean, de minimis laguntza bat dela jakinarazi behar zaio.

5.– Ebazpena SPRIren webgunean eta EHAAAn argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Diruz lagundu daitekeen jarduera amaitu eta 10 egun balioduneko epearen barnean, erakunde onuradunek proiektua gauzatu izana justifikatu beharko dute, SPRIren webguneako likidazio-eskaeraren inprimakiak betez.

2.– Likidazio-eskaera hori sinadura elektronikoaren bidez sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek. SPRIren sistemetan emandako sinadura elektronikoaren eguna hartuko da aurkezpen-egun modura.

3.– Erakunde eskatzailearen eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira likidazio-eskaeran.

4.– Likidazio-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira.

a) Gehienez bost orrialdeko justifikazio-memoria, honako alderdi hauek adierazita:

– Proiektuaren balioa erakunde onuradunarentzat: proiektuak erakunde onuradunari zenbateko balio ukigarria emango dion deskribatuko da, planteatutako helburuak bete diren, emaitzak neurtzeko adierazlerik badagoen eta sortutako inpaktuaren aurreikuspena kontuan hartuta, hobekuntza teknologikoari, lehiakortasunari edo beste onura estrategiko batzuei dagokienez. Era berean, BDIH aktiboaren erabileraren justifikazio egokia azalduko da, BDIHren katalogoan dagokion agentea, nodoa eta aktiboa argi identifikatuz, eta erabilera horrek proiektuaren garapenari eta arrakastari ekarriko lizkiokeen abantaila espezifikoak azalduz.

– Proiektua aurrera eramateko garaian bideratutako ekintza-planaren laburpena: atal honek labor-labor zehaztu behar ditu proiektuan zehar inplementatutako ekintzak, eta lortutako mugarri nagusiak adierazi behar ditu, baita aurreikusitako kronograma bete den ere. Hasierako planarekiko egon daitezkeen desbideratzeak identifikatu eta justifikatu behar dira, arrazoiak, eragina eta hartutako arintze-neurriak barne. Horrez gain, aurkeztutako entregagarrien berrikuspena, proiektuaren helburuekiko egokitasuna eta, hala badagokio, lortutako emaitzen kalitatea eta egokitasuna bermatzeko egindako doikuntzak jaso behar ditu. Gauzatzeko garaian sor daitezkeen ezustekoen aurrean erantzuteko gaitasuna eta arriskuen kudeaketa ere baloratuko dira.

– Aurreikusitako jarraipena: proiektua amaitu ondoren egingo den plangintza deskribatuko da, eta aurreikusitako ekintzak zehaztuko dira, lortutako emaitzei jarraipena emateko. Besteak beste, eskala handiagoko pilotu batera zabaltzea, makinetan edo azpiegiturretan inbertitzea, teknologia berriak integratzea edo proiektutik eratorritako prozesuak inplementatzea jaso dezake horrek.

Era berean, epe ertain eta luzera begira ekintzen aurrerapen maila eta eragina ebaluatzekeo baliagarriak diren jarraipenerako funtsezko adierazleak ezarri behar dira. Adierazle horiek eraginkortasunaren, produktibitatearen, kalitatearen, jasangarritasunarekin eta inbertsioaren itzulkinaren hobekuntzekin lotuta egon daitezke, besteak beste. Proposatutako jarraipen-planaren argitasuna eta bideragarritasuna baloratuko dira, bai eta erakunde onuradunak lortutako emaitzak finkatzeko eta eskalatzekeo duen konpromisoa ere.

b) Egikaritutako gastuen justifikazio-memoria eta gastu eta inbertsio hautagarrien fakturak, kostuen banakapenarekin.

c) Finantza-erakundearen ordainketako banku-egiaztagiriak, proiektuan diruz lagun daitezkeen gastuena.

d) Jarduerak, dirulaguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, diruz lagundutako jardueretan bideratutako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatu beharko dira.

e) Finantza-erakundearen ziurtagiria, onuradunaren titulartasuna eta kontu korrontearen zenbakia (IBAN) egiaztatzen duena, baldin eta aurretik adierazitakoa aldatu egin bada.

5.– Ez dira kontuan hartuko DLOren 31.3 artikulua, aplikagarria denean, betetzen ez duten gastuak 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legeak (merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen) aurreikusten dituen ordainketa-epeei dagokienez.

6.– Ebazpena Zuzendaritza Nagusiak emango du eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

14. artikulua.– Likidazio-eskaerak zuzentzea.

1.– Likidazio-eskaerak ez badaude behar bezala beteta puntu guztietan edo ez bada eskatutako dokumentazio osoa ekartzen, SPRIk 10 egun balioduneko epea emango dio erakundearen legeko ordezkariari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko.

2.– Epe horretan akatsa zuzendu ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, helburu horretarako agindutako ebazpen baten bidez.

15. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Esleitutako dirulaguntzaren ordainketa aldi bakar batean egingo zaio laguntzaren erakunde onuradunari, 13. artikuluan eskatutako likidazio-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Ez da ordainketarik egingo onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin lotutakoak betetzen ez baditu edo zenbatekoren bat itzuli behar duela ebatzi delako zorduna bada.

2.– Baldin eta gastu hautagarria dirulaguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki egokituko zaio gastuari, 8. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen arabera emango diren dirulaguntzen onuradun izango diren erakundeek honako artikulua hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte: DAELen 14. eta 42. artikuluetan jasotakoak, eta zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek:

- a) Dirulaguntzaren esleipena oinarritzen duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea.
 - b) Betekizunak eta baldintzak betetzen dira egiaztatzea SPRIren aurrean eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.
 - c) Emandako laguntza onartzea. Hartara, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen denetik hamar baliodun eguneko epean eta SPRIren aurrean espresuki horri uko egin ezean, ulertuko da erakunde onuradunak laguntza onartu duela.
 - d) Emandako laguntza jarduketa-plana aurrera eramateko erabiltzea, baita esleipenaren xede izan ziren gastuak finantzatzeko ere.
 - e) Onartzea SPRIk beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria eska dezakeela eta SPRIk izendatutako langileek, bere edozein instalaziotan, beharrezkotzat eta egokitza jotako egiaztapen guztiak egin ditzaketela. Horien guztien helburua izango da emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea.
 - f) Faktura osoak gordetzea eta SPRIren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku jartzea lau urtez, gastu hautagarriak gauzatzen direnetik aurrera.
 - g) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanaz.
 - h) SPRIri berehala jakinaraztea laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso dutela hemen araututako dirulaguntzen xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik.
- Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.
- i) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu dela jakinaraztea SPRIri.
- Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.
- j) Esleipenaren ebazpena eman aurretik eta ordaintzerako unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak zein dirulaguntzen itzulketei lotutako betebeharrak egunean dituela ziurtatzea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an onartutako Aginduan ezarritako moduan.
 - k) Erakundearen izaera juridikoa dela eta kontabilitate-liburuek hala ezarritako gero, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikusitutako gainerako dokumentuak aurkeztea pertsona onuradunari dagokion merkataritzako legediak eta sektoreko legediak ezartzen duten terminoetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitate-egoerak eta erregistroak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egin daitezkeela bermatzeko.

l) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

m) Konfidentziasunaren, datu pertsonalen babesaren eta enpresen sekretuen balizko mugak errespetatuz, SPRIrekin lankidetzan aritzea proiektuaren eta dirulaguntzaren xede-emaitzak zabaltzeko, SPRIk dituen komunikazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-mekanismoen bidez.

n) Zabaltze-neurri hauek ezartzea dirulaguntza jasoko duen programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jarduketaren izaera publikoari publizitate egokia eman ahal izateko, DLOren 18.4 artikulua araber.

– Jendaurrean zabaltzeko prestatzen diren dokumentuetan, karteletan, propagandan eta argitalpenetan, SPRIren logotipoa eta esaldi hau jaso beharko dira: «SPRIk diruz lagundua», esteka honetan eskuragarri dagoen formatuaren arabera: <https://www.spri.eus/nortasun-bisuala/>

– Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzen argitalpenean, iragarkietan eta publizitatean bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

ñ) Garatutako jardueraren edo jarduketaren gaineko diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DAELen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

o) Hizkerak eta irudiek ikuspegi interseksionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

p) Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta, batez ere, euskararen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

q) DAELen 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duena enpresa bat baldin bada, operazio komertzialetan egindako gastu diruz lagungarriak aplikagarria den sektoreko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, hala badagokio, Merkataritza-operazioetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

r) Onuraduna DAELen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokalizaziorik ez egitea.

17. artikulua.– Dirulaguntzak aldatzea eta epeak luzatzea.

1.– Aurreikusita dago dirulaguntza ematen duen organoak emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabakitzea, gertatutako egoerari buruzko balorazioa egin ostean, ofizioz edo interesdunak eskatuta, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Alde baten instantziari erantzunez gero, pertsona onuradunak jakin bezain pronto komunikatzea eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik, DAELen 14.e) artikuluan jasotako betebeharra betez.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Egindako jarduera edo jokabidea edo egingo dena oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabekoak ez izatea.

e) Aldaketa sustatu duten elementu eta baldintza berriak hasieran eman izan balira, dirulaguntza ukatzeko modukoak ez izatea eta aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektua erabat aldatzeko bezain handiak.

f) Hirugarrenen eskubideak ez urratzea.

2.— Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DAELen 40. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

3.— Halaber, erakunde eskatzaileek aldeztu aurretik eskatuta eta justifikatuta, programa kudeatzeko arduradunak jarduerak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, betiere proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2 hilabete baino gehiago luzatzen ez bada.

18. artikulua.— Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.— Ikusiko balitz erakunde onuradunek ez dutela bete oinarri hauetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta, hala badagokio, laguntzen ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko dute eta SPRlri itzuli beharko dizkiote ordura arte kobratu dituzten laguntzen diru kopuruak gehi dagozkien berandutze-interesak, eta, behar balitz, legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzaten. Era berean, aholkularitza enpresak hutsegiteren bat egin badu, programa honi atxikitako beste proiektu batzuetan parte hartzea debeka dakioke.

2.— Edonola ere, artikulua honetan aurrez ikusitako eragineterako ez-betetzea izango da honako hau:

a) Laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako ekintzak aldatzea SPRlren baimenik gabe. Halaber, ez-betetzea izango da SPRlri ez jakinaraztea proiektuaren exekuzioan gertatutako aldaketak, baldin eta aldatu egiten badituzte laguntza emateko aztertu ziren baldintzak. Posible da aldaketak baimentzea, betiere erakunde onuradunak baimena eskatu badiot SPRlri, eta justifikatu baditu aldaketa horiek, ahal dela, proiektuan aplikatu baino lehen, eta betiere, Programa honek lagundutako jardueren eta lortu nahi dituen helburuen izaera aldatzen ez badute.

b) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako betekizunak ez-betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua-betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

d) Laguntza eskuratzeko Programa honetan ezarritako baldintza eta betekizunak edo laguntza emateak berekin zekartzen baldintzak bete gabe.

e) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

f) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez-betetzea.

g) DAELen 36. artikuluan aurreikusitako arrazoiak.

3.— SPRlri dagokio ez-betetzea egiaztatzeko espedientea hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.— Ez badira-betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak (DAELen 51. artikulua arabera, enpresa-deslokalizazioaren aitorpena barne) edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatu egingo da ez-betetze espedientea ireki ondoren eta SPRlri dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio, nahiz eta horrek ez duen eragotziko kasuan kasuko ekintza legalak abiaraztea eta dagozkion zigorrak ezartzea. SPRlren Zuzendaritza Nagusiari dagokio dirulaguntza ezeztatzea —eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularazteko— espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.— Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta betiere onuradunaren jarduketak konpromisoak asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza partzialki ordainduko da edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulatzekoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta erakunde esleitzailleak onartu ondoren.

6.— Halaber, gainfinantzaketa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzen duen laguntza zatia itzuli beharko da, 9. artikuluan araututakoari jarraikiz. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulketa erabakitzeke emango den ebazpenean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

- 1.— Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea (DAEL).
- 2.— 2003ko abenduaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta, aplikagarria denean, 2003ko abenduaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- 3.— Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, artikuluen aplikazioari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeke, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus. Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://www.spri.eus/lege-oharra/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.

Proiektuaren harremanetarako eta deskribapenerako datu orokorrak Europako Batzordearen datu-basean sartu ahal izango dira, BDIHk EDIHen esparruan emandako zerbitzuen berri emateko - EDIH Catalogue | European Digital Innovation Hubs Network (europa.eu).

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA

Onuradunek programa honen bitartez esleitutako dirulaguntzaren jatorriaren publizitate egokia eman beharko dute, oinarrietan zehaztutako baldintzetan.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUAREN EDUKIA

[Izen-abizenak] jaunak/andreak, [...] zenbakidun NANA indarrean duenak, [sozietate eskatzailearen izena] ordezkatzeko du, [...] IFZ zenbakia duena eta egoitza soziala [helbidea] helbidean duena, eta

HONAKOA ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

(i) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat duela. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izango du inpaktua eta bertan egingo da diruz laguntzekoa den jarduera.

(ii) Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaietako Zergaren dagokion epigrafean alta emanda dagoela.

(iii) Aurreko hiru urteetan de minimis laguntza gisa 300.000 euro baino gehiago ez dituela jaso. Hori dela eta, eskaera honen atalean, alderdi hauei buruzko informazio-zerrenda aurkeztu beharko da:

a) Aurreko hiru urtetan jasotako de minimis laguntzak; bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

(iv) Enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa hartzen duela, DAELen 49. artikuluan adierazitako baldintzetan.

(v) Gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa hartzen duela, DAELen 9.4.h) artikuluan adierazitako baldintzetan.

(vi) Ez direla sektore publikoren batekoak diren edo sektore publikoaren parte diren erakundeak, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalaren araudien arabera.

(vii) Ez dagoela DAELen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean; hau da:

a) Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso izana; edo prebarikazioarekin, funtzionario-eroskeriarekin, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearekin, influentzia-trafikoarekin, iruzurrekin eta legearen aurkako ordainarazpenekin lotutako delituengatik edo delitu urbanistikoengatik zigorra jaso izana.

b) Borondatezko konkurtso-aitorpena eskatu izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat aitortu izana, konkurtsoan aitortuta egotea (hitzarmen bat eragingarri bihurtu denean izan ezik), esku-hartze judizial baten mende egotea edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak xedatutakoaren arabera ezgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitze-aldia amaitu gabe egonda.

c) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona fisiko batzuen legezko ordezkariak direnak honako lege hauek jasotako kasuren batean sartuta egotea bateraezintasuneko erregimenari dagokionez: Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargudun Publikoen Interes Gatazkak eta Jokabide Kodea Arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, edo Hauteskunde Erregimen Orokorreko 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako hautetsia izatea, gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan edo lege horretan ezarritako baldintzen arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea, araudiak zehazten duen moduan.

f) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean ez izatea, araudiak zehazten dituen baldintzetan.

h) Epai irmo baten bidez, zigor gisa, dirulaguntzak jasotzeko aukera galdu izana, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehatzago esanda, dirulaguntzen onuradun edo erakunde kolaboratzaile izaera ezin izango dute eduki sexu-arrazoiarekin lotutako jardura baztertzailerik egin badute edo sexu-arrazoiengatik bazterkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso badute, zigor horretan ezarritako aldiaren zehar. Honako enpresa hauek ere ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik: Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat izan behar dutenak baina ez dutenak; eta 50 langile baino gehiago izanik, sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana ziurtatzen ez duten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legediak ezarritako baldintzetan.

i) Pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatua edo publikoa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunengatik administrazio-bidean ebazpen irmo bidez zehatuta egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak abian jarri eta isuna ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonen mesedetan lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota bete ez izana, hori bete ahal izateko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

(viii) Ez dagoela laguntzak errekupeatzeko agindu baten mende, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren.

(ix) Ez duela LGTBIfobiarik egin, bultzatu edo sustatzen, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

I. – Eskaera honetako datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztian jasotakoak egiazkoak eta osoak dira. Horrekin lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 28.7 artikulua xedatutakoaren arabera, dagokion erantzukizuna hartuko du bere gain.

II.— Aurreko I. atalean egindako adierazpena betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa duela eta Administrazioaren esku jarriko duela hark eskatutakoan; eta aurrez aipatutako betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, haren eskubidearen aitortzari edo egikaritzeari dagokion denbora-tartean zehar.

III.— Badakiela adierazpen honi laguntzen dion edo adierazpenaren barruan agertzen den datu, adierazpen edo dokumenturen bat guztiz zuzena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu, edo hura administrazio eskudunaren aurrean aurkezten ez badu, ezingo duela eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.

[...] Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.

II. ERANSKINA

BDIH AKTIBOEN ZERRENDAA

Esteka honetan kontsulta daiteke nodoen eta horien aktiboen zerrenda:

<https://www.spri.eus/laguntzak/bdih-konexio/>

III. ERANSKINA

EUROPEAN DIGITAL INNOVATION HUBSEN ZERRENDIA

<https://european-digital-innovation-hubs.ec.europa.eu/home>